

## Caro Baroja, saritua

Deia, 1983-06-14.

Julio Caro Baroja, "Príncipe de Asturias" deritzan sari berri batetarako hautatua izan da.

Eta harridura handiz jaso du herria, kazetariak lekuko. Ez da D. Julio sari horien atzetik ibiltzeko gizona; aitzitik, losintxa horiek uxatzen dituzten egiak askatasunean eta hitz zorrotzez esatera ausartzen den gizona da. Osotasun honek, mito zahar eta herrien aurka erasoaz mito-gileak salatzeko duen adorea markatu eta nabaritzen du gehien bat gure gaurko pertsonala.

Mitogile horiek ba dira kanpokoak, eta baita Euskal Herrikoak ere.

Caro Baroja jauna Madrilen jaioa bada ere (eta ez du honek berez kalterako den ezer adierazi nahi), gure jatorrikoa da, eta Euskal Herriko semetzat dugu euskaldunok. Nongoa da, ba, gizona, maitasuna eta lana jartzen duen herrikoa ez bada? Gehien bat hemen, eta herri honetaz, eginak izan dira antropologo, etnologo, idazle eta saiolari zuhur honen lan gehienak, eta gure herri barruan itsasita dauden bi instituzioetako zutabe eta argia ere izan da beste gauza batzuen artean: Eusko-jakintza eta Euskaltzaindia.

Alderdi hau bakarrik jaso nahi dut gaur eta hemen, kritikari argi honek egin izan dituen salaketa batzuek laburki gogoraziaz: inor ez da *egiaren jabe*, "neu gutxiago!", baidaki Heraklitoren ikasle honek egia beti ur-zuloan dagoela. *Topikoak* gezurtiak dira gehienetan, baina eragin handia dute; galde bakoitzak baditu balio bakar-berea duten hitzak, hitz berekoiak. *Askatasuna* hitza herri bakoitzak neurtzen du; euskaldunena "askatu"-tik datorrenez gero, berba honek gizon eskea, jaseko gizona, adierazten du, askatasunaz gozaten duena. Kontuan edukitzekoa da, ba. "Euskadi Askatuta"ak *kontzientziaz aske sentitzen diren* gizonez osatua eskatzen duela. *Zientzia eta arrazoia* beragaz izan nahi izaten dituzte grina eta haserrea sortzen duten borrokariek, egiaren barruan sartuak daudela frogatzeko. *Eta intelektualek politikan* egin dituzten okerrak sonatuak izan badira, estadistika bidez proba daiteke handiagoak izan direla politikoenak; huts handienak ez zituzten Unamuno eta Ortega egin, politikari profesionalek baizik. *Identitateari* buruz, sortu da Euskal Herrian, etorkinek direla eta, arazo larririk; uka ezina da fenomeno honek herriari sortu dion estuasuna; baina alderdi politikoek erantzun egokirik ematen saiatu al dira?